

Siberiako kurriloen itzulera

Indiako Bharatpur hiriko, Keoladeo Parke Nazionalera lau kurrilo itzuli direla esateak, ezer berririk duen galdetzeramango du irakurle bat baino gehiago. Errusia eta Indiako zientzilariek behinik behin, oso pozik jaso dute albistea. Hegazti migratzaileak bi urtez jarraian ez ziren neguoro bezala Indiako Parkera itzuli eta okerrenaren beldur ziren. Desagertzeko zorian dagoen hegazti horrek neguoro egiten du Uraletatik, Afganistan eta Pakistan barrera Indiarako

bidaia. 1960an ehun kurrilo bazeuden ere, 1990. urtean bost besterik ez zituzten zenbatu. Ahaleginak egin dituzte kurrilo-kumeak Parkean hazi eta gero aske bizi direnekin elkar daitezen, baina orain arte ez dute arrakastarik lortu. Mendebaldeko kurrilo-mota (*Grus leucogeranus*) horren egoera larria bada ere, hegazti eder horien kopurua ez da bost aletara murrizten. Mendebaldeko migratzaile bidetari segitzen dion talde horrez gain, bada beste bat kopuruz handiagoa. Ekialdekoa deritzaio bigarren talde horri, hiru mila inguru dira eta urtero Siberiatik abiatu eta Txinarantz egiten dute bidaia.

Galdutzat jotako lau kurrilo itzuli dira aurtengo neguan Bharatpur-ko Parkera. Siberiatik Indiarako bidaiatzen duten hegazti migratzaile horiek bi negu eman dituzte parkera agertu gabe. Atzerapen horren arrazoia ez dute oraindik aurkitu.

Azkenean hil da

Urte berriarekin batera, animalia-espezie bat galdu genuen. Bat gutxienez edo guk dakigularik, behintzat. Londresko zoologikotik aditzera eman dutenez, *Partula turgida* marraskilo-espezietako azken alea urtarriaren hasieran hil zen. Zoologikoko langileei marraskiloaren heriotzaz ohartzea nahikoa zaila gertatu zitzaion; marraskiloa ez zen batere mugitu azken egunetan, baina izatez, nahikoa motela zen gure laguntzua. Zehatzagoak izateko, ezagutzen diren marraskiloen artean, *Partula turgida* zen geldoena: urtean 60



Keniako Amboseli parke nazionalako lehoiak oso errentagarriak dira. Lehoi bakoitzak 3 milioi pezetako diru-irabaziak sorrazten ditu.

cm egiten zituen soil-soilik.


Londresetik esan denaren arabera, Polinesiarren jatorria marraskilo-espezie horrek eta duela 20 urte ingurutik desagertzeko arriskuan zegoen. Hori zela medio, babes-programa berezian barruan zaindu izan da Londresko azken alea, baina tamalez, ahaleginak ez du espeziearen iraupena ziurtatzerik lortu. Bat gutxiago, beraz.

Zein da naturaren kostua?

Inoiz galdera hori bururatu bazaizu irakurle, hona hemen erantzun batzuk. Ecologia izeneko aldizkariak bildutako datuen arabera, naturari eragindako kalteek, planeta osoarengan duten eraginez gain, berebiziko diru-galerak


sortzen dituzte. Ingarugiro-triskantza bakoitzaren kostua zenbatekoa den jakitea ez da batere erraza, baina batzuetarako datuak ematera ausartu dira. Esate baterako, Txernobilgo istripu nuklearrak sortutako kalte materialek 350.000 milioi dolarreko kostua izan du orain arte; ondorioz, Ukrainiak bere Barne Produktu Gordinaren (BPG-ren) % 11 inguru horretara zuzendu behar izaten du urtero. Bestalde, gure hirietako trafiko-arazoek kostu ekonomikoa 18 bilioi pezetakoa da Europako Batasunean; jakina denez, energia eta erregaien gastuei, lan-ordutako galera edota azpiegiturretan sortzen diren kalteak gehitu behar zaizkie. Kalteak konpontzea bada, nahikoa garestia suertatzen zaigu. Kostu handia du baina balio, gehiago balio du oraindik.





Ditxosozko PVCa

Zer gertatzen da PVCarekin? Azken bolada honetan, aldeko eta kontrako iritziak nonahi aurki daitezke eta polemika bizia piztu da horren inguruan. Zenbait lekutan esate baterako, batzorde bereziak eratu dira PVCaren erabilera arautzeko, giza osasunarentzat eta ingurugiroaren-




Leihoak egiteko, ura edo freskagarrien ontziak edo gure etxeetako tuturia egiteko. Horretan guztietan erabiltzen da gaur egun PVCa eta zenbaitzuren iritzi kalterik sortzen ez badu ere, polimero horren erabilera arautzea ezinbestekoa da.

tzat kaltegarria izan daitekeela zabaldu baita. European jadanik entzun dira PVCaren erabilera erabat debekatzearen aldeko ahotsak eta Suitzan esaterako, erabat galerazita dago ura, freskagarriak edo garagardoa botilaratzeko. Ekoizleek inongo kalterik eragin

lezakeenik ukatzen duten bitartean, talde ekologistek PVCa ekoizteak ingurunean poluzioa sortzen duela eta gizakion nerbio- eta ugal-sistemei kalteak eragiten dietela diote. Horra hor beraz, polemikaren muina. PVC Poli(bili kloruro) polimeroaren laburtzapena da. Material hau erabilienetakoa da bere ezaugarriak medio: disolbatzaile gehienetan disolbagaitza da eta agente kimikoak ondo jasaten ditu. Duela 60 urte hasi zen merkatuan sarri-sarri erabiltzen. European 5 milioi tona inguru ekoizten da urtero, Alemanian, Frantzia eta Italian nagusiki.

Irla berria?

Erupzio bolkanikoen ondorioz, joan den urtean irla berria jaio zen Zeelanda Berriaren iparrekialdera. Ez dirudi ezer berezirik duenik albiste horrek, izan ere, sumendiek laba, hautsa eta gasak kanporatzen dituztenean sarritan sortu ohi dira irla berriak eta horietariko asko, sortu bezain azkar desagertu ere bai. Bada go ordea, irla jaio berriak iraungo duen itxaropena. Iazko ekainean hasi zen gainazaleratzen eta une honetan, 270 metroko luzera eta 42 metroko garaiera du. Bere osaketa dela medio, itsasoaren erasoei aurre egiteko moduan izango dela uste




Ozeano Bareko plaka tektonikoak eta plaka australiarrak talka egiten duteneko gunean jaio da argazkiko irla. Erupzio bolkanikoen ondoren, irla berriak sortu eta berehala desagertzeko joera badute ere, ez dute geologoen oraingoan hori gertatuko denik uste.

dute geologoen. Jakinaenez, olatuen joan-etorrien higaduraz desagertzen dira normalki irla sortu berriak. Baina, arestian esan bezala, Zeelanda Berriko irla berriaren iraupenaz baikor azaldu da aditu asko. Denborak esango du zein den irlatxo horren patua.

Etixerako bidean

Jaio ziren hondartzetara itzultzen dira itsas dortokak arrautzak errutera. Ehundaka edo batzuetan milaka kilometrorra egonda ere, etxerako bidea aurkitu egiten dute. Bidaia luze horiek burutzeko nola moldatzen diren orain jakin ahal izan dute zientzilariek: itsas dortokak Lurra inguratzen duten eremu magnetikoen baliatzen dira etxera itzultzeko. Ozeanoetan zehar bidaiatzeko, bi koordinatuetako mapa magneti-

koaz, intentsitateaz eta inklinazio magnetikoen angeluez baliatzen dira. "Iparrorraz neurologikoari" esker, eremu magnetikoetan gertatzen diren intentsitate- eta inklinazio-aldaketak atzematen dituzte eta Lurra-rikiko duten posizioa birzehazten dute. Ez dute bide-seinalerik behar itsas dortokek eta hutsik egin gabe, aurkitzen dute etxerako bidea. Guztiok dugu horretaz, zer ikasi franko.



Itsas dortokak jaio ziren hondartzetara itzultzen dira arrautzak errutera, baina milaka kilometroko bidaia egin behar badute ere. "Iparrorraz neurologikoak", radar magnetikoak alegia, laguntzen die norabide egokia aurkitzen.